

Goitik behera



Gaur larunbata da. Herriko jaiak dira eta kalea jendez beterik dago. Gaur goitibeheren lasterketa dago. Dena prest dago: epaileak banderatxoa du eskuan eta guztiak itxaroten ari dira.

—Prest zaudete? —dio epaileak.

—Itxaron pixka bat, nire laguna falta da. Gontzal falta da.

—Begira! Hortik dator —dio Enekok.

—Gontzal, etorri azkar! Berandu da. —esaten du Gorkak.

—Banoa, banoa —dio Gontzalek. Epaileak banderatxoa gora igo eta hara doaz guztiak. Jende asko ari da ikusten eta bidera irten dira hobeto ikusteko. Baina bidean egotea oso arriskutsua da.

—Kendu bidetik, mesedez! —esaten du udaltzainak.

—Joan espaloira.

Partaideak oso arin doaz eta bidea estua da. Batzuek ez dute kurba ondo hartu eta erori egin dira.

—Ai! Nolako mina! —esaten du batek.

—Nolako kolpea! —esaten du ikusle batek.

Lasterketa batean, tranpatiak ere badaude. Gontzalek eta Izaskunek bidezidor bat ikusi dute eta hortik doaz.

—Guk irabaziko dugu —esaten dute.

—Hemendik ez, tranpati halakoak! —esaten du udaltzainak.

Eta buelta eman behar izan dute. Azkenak heldu dira helmugara. Ez dute irabazi, baina hori ez da inportanteena. Inportanteena parte hartzea da.



GOITIK BEHERA

Eman erantzuna galdera hauei:

1.- Nola dago kalea?

.....

2.- Zer dago gaur?

.....

3.- Nork du eskuan banderatxoa?

.....

4.- Nora irten da jendea?

.....

5.- Zertarako irten da jendea bidera?

.....

6.- Nolakoa da bidean egotea?

.....

7.- Nola doaz partaideak?

.....

8.- Nondik doaz Gontzal eta Izaskun?

.....

9.- Nolakoak dira Gontzal eta Izaskun?

.....

10.- Nortzu heldu dira azkenak helmugara?

.....

Goitik behera (Hiztegia)

Espaloia	Nekatuta
Eliza	Nekaturik
Udaletxea	Pozik
Frontoia	Triste
Lorategia	Haserre
Zinema	Berandu
Postaria	Goiz
Apaiza	Bultzatu
Udalzaina	Epailea
Alkatea	Egia
Futbol-zelaia	Gezurra
Txirrindularia	Nondik
Lasterketa	Zenbat
Mendatea	Nola
Tranpatia	Taldea
Zikina	Bakoitza
Garbia